

KRONIKA

Hiria eta Bestelako Politikak 2017-2018

Botere formak eta geografiak



Ula I. Busturia
Arkitekto doktorea

Ibon Salaberria
San Vicente
Arkitektoa

EHUko irakasleak eta Hiria
eta Bestelako Politikak
programaren arduradunak

Jasotze data: 2017-11-19

Onartze data: 2017-12-12

Hiria eta Bestelako Politikak 2013. urtetik Donostiako Tabakalerak aurrera daraman arkitekturako programa publikoa da. Programa horrek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, arkitekturaren praktikan —eta beraz hiriaren eraikuntzan— garatzen diren politikak mahai gaineratzea, eta, bestetik, pentsamendu kritikoa arkitektura diziplinan zabaltzeko nahia du.

Programak, bere 5. urteurrenean, ziklo-aldaketa bat burutu du. Orain arte urtero begirada zehatz bat proposatu da (arkitekturaren merkantilizazioa, logika komunitarioa, arkitekturaren emantzipatze-gaitasuna, instituzioa hiri gisa) eta gai konkretu bakoitzaren barnean bi ekitaldi publiko antolatu izan dira, hitzaldi eta mintegi saioen bidez. Urte bakoitzean hitz egindakoari buruz argitalpen bat prestatu da, programaren biltze- eta jasotze-funtzioa betetzen duen testu-bildumatxoa osatuz.

Hemendik aurrerako formatuaren lehenengo aldaketa tenporala da. Bi urteko epeak beste erritmo batean lan egiteko aukera eskaintzen baitu eta, beraz, beste jomuga batzuk planteatzea posible da. Bigarren aldaketa programa publikoa ikerketa-prozesu bilakatzea da. Ikerketak galdera eta hipotesi baten gainean sakontzea ahalbidetzen du eta ikertzeko moduetan hausnartzeko aukera ere bai. Formatu berriaren azken berrikuntza lantaldea aberastea izan da. Kanpoko eragile baten partaidetzak programari ikuspegi desberdin bat eskainiko diolako eta munduko beste lekuetan egiten ari diren ikerketetan begiradak barneratzea. 2017-2018 urtean Blanca Pujals arkitekto katalana gehitu da lantaldera.

Ikerketa-lana Arkitektura Eskolatik at eta kultura produzitzen den leku batean egiteak esangura propioa du. Akademiaren «kalitate» irizpideetatik libre eta bestelako lan-metodologiak praktikara eramateko abagunea baita, eta nola ez, arkitektura-pentsamendua beste eremu batzuetara eramateko eta beste eremu batzuetan galtzeko bidea da, unibertsitateetako inpaktu-tasa psikosiaren hormetatik kanpo.

Datozen bi urteetako gaiak botere-endarren eta arkitekturaren arteko loturak argitaratzeko helburua du. Hainbat galdera dira ikerketa abian jartzen dutenak: Espazioaren diseinuak nola eragiten du edo zein paper jokatzen du jazarpen-egoera baten aurrean? Zein harreman dago bi ekintzen artean? Zein da arkitekturaren eta biolentziaren arteko lotura? Nola eragin du arkitekturak gure lurraldean gertatzen den eta gertatu izan den biolentzia-esparruetan?

Arkitekturari, lehenik eta behin, bere materiaren bidez botere-endarrek sortzen duten biolentziaren lekukoa izateko gaitasuna onartu behar zaio. Eyal Weizman-ek Londresko Goldsmith eskolan aurrera daramatzan Research Architecture eta Forensic Architecture ikerketa-programak arkitektoek kartografiaren gain gertakizunak irakurtzeko duten gaitasunean oinarritzen dira. Blanca Pujals lankideak masterra Weizman-en planteamenduetan garatu du eta bertako irakaspen nagusia da, haren hitzetan, arkitektoek lurraldearen gain izandako gertakizunen errelatoa aldatzeko duten gaitasuna. Forensic ikuspegiak egiteko hori harago eramán du: arkitektura testigantza gisa darabil epailearen aurrera biolentzia-gertakizunak salatzen.



Ezin ahantz daiteke, arkitekturak botere-harremanak erreproduzitzeko duen gaitasunagatik, biolentzia-eragilea ere badela. Arkitekturaren eta biolentziaren arteko hartu-emanak aztertzeko garaian, Hiria eta Bestelako Politikak programari ez zaizkio inpaktu bisualen testuinguruak interesatzen (bonba, guda bat). Biolentzia ikusezinetan jarriko du arreta. Denboran zehar luzatzen direnak, edo biolentzia direnak baina biolentzia bezala definitzen ez ditugunak. Interes horiek lantzeko, urriaren 6 eta 7an lan-saio publiko bat burutu zen Tabakaleran. Blanca Pujals-ek gorputz baztertuen gaineko biolentzien inguruan hitzaldi bat eman zuen. Izan ere, gorputz «normal» baten eraikuntzak gorputz normalizatu bat sortu du eta arkitekturaren erabiltzaile prototipo bilakatu da. Espazioen neurriak eta dimentsioak eta gure hirien plazak eta kaleak, gorputz eredu nagusi eta bateratu baten menpe egiten dira, gainontzeko guztiak ahaztuz. Blancak dioen bezalaxe, «arkitektura gorputza da», eta arkitektura erresistentzia egiteko espazio gisa ulertu behar dugu, biolentzia-eremuak eraldatu nahi baditugu gutxienez.

Urriko saioaren gonbidatua Leopold Lambert arkitekto frantsesa izan zen. Leopold-ek *The Funambulist* aldizkari eta blogaren sortzailea da, hamar urteko ibilbidea duena jadanik. *The Funambulist* adibide bikaina da ikerketa akademiatik kanpo egiteko. Ikerketa bera egiteko modua erresistentzia-leku bilakatu da Leopoldentzat. Blog sarrerak eginaz hasi zuen ibilbidea, bertan bere interes-gaiak zentratuz: biolentzia esplizituko egoeretan arkitekturak jokatzeko duen papera, arkitekturak gorputzetan duen eragina. Botere-jazarpenak eta arkitektura, oro har, biltzen diren egoerak identifikatu izan ditu Leopoldek. Sakontze-lana egiteko, gaietan jakitun ziren pertsonaiak elkarrizketatu zituen, podcast bitartez erregistratuz eta jakintza-entziklopedia entzungarria gaineratuz blog atalari. Modu erraz eta merkean jakintza jaso eta sakabanatzeko trikimailu inteligentea Leopoldena. Egun *The Funambulist* aldizkari bat da, gai monografikoak lantzen ditu eta Leopoldek berak mundu osoko idazleak aukeratzen ditu idazketa-aportazioak egiteko.

Leopoldek, beraz, urteak daramatza ikertzen eta bere gai nagusia espazioen politikak eta horiek gorputzetan dituzten eraginak aztertzea da. Bere teoria modu zuzenean azaldu zuen Tabakaleran: arkitektura biolentzia-eragilea da definizioz eta boterearen tresna da, ezin dira sekula banatuak izan. Hau da, arkitekturaren biolentzia ez dago erabileran, bere izaeran baizik. Modu kontzeptualean azaldu zuen baieztape boteretsu hori: arkitektura horma bat da, non ate bat egiten den eta ate zeharkatzeko giltza bat behar den. Egoera espazial basiko hori, arkitekturen funtsa dena eta arkitektura egitean errepikatzen dena, beti, biolentzia-eragilea da. Pertsonak banatzen ditu hormaren alde batean eta bestean, eta norbaitek du giltza (boterea) erabakitzeke nor dagoen eta nor ez, hormaren alde bakoitzean. Eszena horrek biolentziaz hitz egiten du eta biolentzia-tresna dispositibo jakin batez (arkitekturaz).

Leopoldek ikertutako hainbat adibide plazaratu zituen, Palestinatik Parisera (salbuespen-estatua bilakatu da) bidaiatzera gonbidatuz. Bertako kontrol-arkitekturak aurkezteaz aparte, Leopoldek arkitektoak proiektatzeko bere burua jartzen duen lekuari garrantzia eman nahi izan zion. Bere ikerketan arreta berezia jartzen dio bere kondizioari: bere hitzak gizon, zuri eta klase ertaineko frantses-kultura kolonizatzaile batetik ari den batenak dira, alegia. Lehenik karga hori onartu behar da bestearen ikuspegi barneratzeko eta norberaren barneraketan sor ditzakeen kontraesanak detektatzeko edota gure figurak izan dezakeen ikuspegi paternalista. Guztiarekin, arkitekto bezala gure egitekoak biolentzia eta bazterketa eragiteko aukera onartu beharra dago.

Urriko saioek argitaratu dute arkitekturak eta arkitekturaren egileek biolentzia, bazterketa eta jazarpen-egoerak sortzeko, eragiteko eta inposatzeko duten gaitasuna/boterea. Ohiko objektibotasun, arrazionaltasun, distantziakidetasunaren paperetik urruti. Beste behin, arkitekturaren paper politikoa azpimarratzera garamatza.
